

FUNTSEZKO JARDUERAK

Plataformako edo **sareko jarduerak** izango dira gauzatu beharko ditugun jarduera garrantzitsuenak gure APPa ondo funtziona dadin, datuen trafikoa modu egokian kudeatzeko eta sortzen diren arazo teknikoak azkar konpontzeko. Horrez gain, **mantentze-lanak** eta **plataforma-kudeaketa** ezinbestekoak izango dira: eguneraketak egitea, segurtasun-sistemak kontrolatzea, erabiltzaileen datuak babestea eta zerbitzariak egoki funtzionatzen dutela ziurtatzea. Horretarako, arlo honetan esperientzia eta ezagutza tekniko duen pertsona bat kontratatuko dugu, eta, beharrezkoa bada, laguntza tekniko emango duen talde bat sortzeko ere.

Beste aldetik, Sara enpresako marketing eta publizitate arloarekin arduratuko da, eta Eiderrek enpresako finantzak gauzatuko ditu. Bestalde, Luna giza baliabideen burua izango da eta gure bezeroen posta elektronikoei modu atseginean erantzungo die. Bestetik, Iraia biltegiko arduraduna izango da, eta eskaerak, stocka eta horrek dakarren guztia kontrolatzeaz arduratuko da. Azkenik, Uxue diseinuak egingo ditu, betidanik gustuko izan baitu modaren eta diseinuaren mundua.

Era berean, APParen **errendimendua** hobetzeko **analitika-lanak** eta erabiltzaileen **feedback-a** jasotzeko mekanismoak ere gure jarduera garrantzitsuen parte izango dira.

